

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak, beste zortzi autonomia-erkidegorekin batera, Espainiako V. Lankidetzaren aurka bozkatu du, “operatibitate-falta eta aurrekonturik eza” hauteman duelako

*Foru Exekutiboaren iritziz, "lankidetzaren, pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzeko politika publiko garrantzitsuenen artean birkokatu behar da"*

Osteguna, 2018.eko otsailak 15

Nafarroako Gobernuak, Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako zuzendari Gema Mañúren bitartez, aurkako botoa eman dio Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzendariari buruzko txostenari, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta udal administrazioak koordinatzeaz arduratzen den Lurralde Arteko Batzordeak Kanpo-Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren egoitzan egindako bileran.

Hauxe izan da Nafarroaren erabakiaren zergatia: “poposamen zehatzik eza, lankidetzaren deszentralizatuaren aitortze eta definizio egokiaren falta eta aurrekontu-esparrurik eza. Gainera, Planak ez du adierazlerik edo emaitza-esparrurik, eta ondorioz, ezinezkoa da horren jarraipena eta ebaluazioa egitea”.

Plana aldeko 30 botorekin eta aurkako 13 botorekin onartu da. Nafarroarekin batera, bileran ordezkaturako beste zortzi autonomia-erkidego eta lau udal dokumentuaren aurka azaldu dira.

Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzendaria eztabaidatu eta onartzea izan da Lurralde Arteko Batzordearen gai-zerrendako puntu nagusia. Batzordea Estatuko Administrazio Orokorren, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen ordezkariak osatutako organoa da.

Nafarroaren ordezkariaren iritziz, aurkeztutako dokumentuak “azterketa zuzena egiten du garapenerako lankidetzaren nazioarteko egoera eta erronkei buruz eta Espainiaren esparru honetako ekintzari eutsi behar dioten printzipioei buruz”. Alabaina, “ez da parekotasunik hauteman detektaturako arazoaren eta hauek konpontzeko aplikatu daitezkeen neurri, ekintza eta baliabideen artean”.

Nafarroak Ministerioaren proposamenari emandako errefusaren arrazoia, Gema Mañúren hitzetan, “poposamen zehatzik eza, lankidetzaren deszentralizatuaren aitortze eta definizio egokiaren falta eta proposaturako helburuak lortzea ahalbidetuko duen aurrekontu-esparru egokirik eza dira. Asmo onen agiria besterik ez da”.

Nafarroako Gobernuak bat egin du Espainiako GGKEen

Koordinakundeak eta Garapenerako Lankidetzarako Espainiako Kontseiluak egindako analisiarekin.